



Praktika Komunitateak: Pertsonak eta Ezaguera Ehuntzen



Uzt. 01 - Uzt. 02 2026

Kod. H08-26

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2026

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 01 - Uzt. 02 2026

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara Ingelesa

Balio akademikoa

20 ordu

Irakaskuntzako profesionalentzat jardueraren eskola-ordu kopurua

10 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Praktika Komunitate honek eskainitako Uda Ikastaroak hezkuntza-eredu berritzaileak eta praktikan oinarritutako ikuspegi pedagogikoak uztartzen ditu, teoria eta esperientzia zuzena modu integratuan landuz. Helburua da parte-hartzaileei hezkuntza-praktika eraldatzaileen ikuspegi zabala eskaintzea, bai kontzeptualki, bai praktikan esperimendatzeko aukera emanez.

Lehen egunean, hezkuntzaren ikuspegi berritzaileetara hurbilketa egingo da, marko kontzeptuala aurkeztuz eta horien oinarri pedagogikoak modu argian kokatuz. Ondoren, gelako praktikaren erakustaldi gidatu baten bidez, parte-hartzaileek aukera izango dute praktika errealak behatzeko eta horien oinarri teorikoa-zientifikoa eta eguneroko aplikazioa ulertzeko. Jardunaldia tailer praktikoekin osatuko da, non parte-hartzaileek esperimendazioa, elkarriketa eta hausnarketa bidez praktika horien aplikagarritasuna modu kolektiboan aztertuko dituzten.

Bigarren egunean, Praktika Komunitateen ikuspegi ekologikoa eta operatiboa jorratuko da. Formakuntza eredu honen dohainak teorizatu ostean ikaskuntza komunitarioaren oinarriak azalduko dira, eta komunitate batek nola funtzionatzen duen, nola antolatzen den eta zer balio pedagogiko dituen aztertuko da. Horrez gain, adibide praktikoen bidez, parte-hartzaileek aukera izango dute komunitate-lanaren dinamika ezagutzeko, beste profesionalen ekarpenak entzun eta euren testuinguruetara eramateko gakoak identifikatzeko.

Uda Ikastaroak, beraz, espazio aberatsa eskaintzen du ikuspegi pedagogiko berriak ezagutzeko, praktika eraginkorrak partekatzeko eta elkarlan komunitarioan oinarritutako ikaskuntza indartzeko. Parte-hartzaileek ikuspegi berriak, esperientziak eta tresnak jasoko dituzte, euren jardunean eraldaketa-prozesuak sustatu ahal izateko.

Helburuak

- Hezkuntza-praktika berritzaileen eta praktiken oinarri zientifikoaren arteko loturak sakontzea.
- Teoria eta esperientzia errealak modu integratuan lantzea, ikuspegi eraldatzaileak praktikara eramateko gaitasuna indartzuz.
- Praktika Komunitateen ikuspegi ekologikoa eta operatiboa ezagutzea, haien oinarriak, egitura eta funtzionamendua ulertuz.
- Adibide praktikoen bidez elkarren arteko hausnarketa eragitea ko-ikaskuntza sustatuz.
- Hezkuntza-komunitateko eragileen arteko elkarlana eta elkarrikaskuntza indartzea, elkarriketa eta dinamika parte-hartzaileen bidez esperientziak partekatzeko eta komunitate-sareak sendotzeko espazioak eraikiz.

Antolakuntza



Lankidetzak



UNIVERSITY OF
CAMBRIDGE



prest_gara

Programa

2026-07-01

09:00 - 09:15	Erregistroa
09:15 - 09:30	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Andoni Arguiñano Madrazo EHU - Ikastaroko ZuzendariaHizkuntza: euskara Garazi Ormazabal Arizcorreta EHU - Ikastaroko ZuzendariaHizkuntza: euskara
09:30 - 10:30	“ Los currículos flexibles que afloran en la educación. Proyectos completos interdisciplinares.” Helena Forrellad Vives UAB - PonenteHizkuntza: español
10:30 - 11:00	Atsedena
11:00 - 12:30	“Gelako praktika errealei oinarri zientifikoa emanaz. Teoria eta Praktika eskutik lotuak. Azalpenak. “ Esther Gallardo Calonge Arrankudiagako Herri Eskola - Eskola IrakasleaHizkuntza: euskara Helena Forrellad Vives UAB - PonenteHizkuntza: español Xabier Villanueva Izaguirre Muskizko eskola - Eskola IrakasleaHizkuntza: español
12:30 - 13:45	“Tailerra. Hezkuntza ereduan murgiltzen eta praktikak hausnartzen“ Andoni Arguiñano Madrazo EHU - Ikastaroko ZuzendariaHizkuntza: euskara
13:45 - 14:30	Sintesia

2026-07-02

09:30 - 11:00	“Steve Watson. “Education as Autopoietic Ecology: Meaning, Resilience and Digital literacy for the Future of Democratic Educational Communities”“ Steve Watson Faculty of Education at the University of Cambridge - PonenteHizkuntza: ingelesa
11:00 - 11:30	Atsedena
11:30 - 12:30	“Hezkuntza ahalduntze laborategia. Praktika komunitate baten jardun erreala. “ Garazi Ormazabal Arizcorreta EHU - Ikastaroko ZuzendariaHizkuntza: euskara Ander Zubizarreta Zufiria Hizkuntza: ingelesa
12:30 - 13:30	“Praktika komunitateak ezagutzen. Praktika komunitatean ahotsak batzen“ Andoni Arguiñano Madrazo EHU - Ikastaroko ZuzendariaHizkuntza: euskara
13:30 - 14:00	Sintesia
14:00 - 14:30	Itxiera

Zuzendaritza



Andoni Arguiñano Madrazo

UPV/EHU

Andoni Arguiñano Euskaldún Herriko Unibertsitateko (EHU) irakasle agregatua da, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean, Didaktika eta Eskola Antolakuntza Sailean. ALHE ikerketa-taldeko kidea da, eta ICIVIC Europako proiektuaren koordinatzaileetako bat da. Doktore-tesia Antzuola Herri Eskola-n egin zuen, eta ordutik, ikerketa-taldeak laguntzen dituen praktika-komunitateen dinamizatzailer nagusietako bat izan da. Bere espezializazioa berrikuntza pedagogikoan, aniztasunarekiko begirada aldaketan eta irakaslearen rola azterketan oinarritzen da



Garazi Ormazabal Arizcorreta

UPV/EHU

Garazi Ormazabal UPV/EHUko doktore ondoko ikerlaria da, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean, Didaktika eta Eskola Antolakuntza Sailean. Ikerketa arloan, ALHE ikerketa-taldeko kidea da, ondorioz, taldeko zenbait proiektuetan aktiboki parte hartzen du. Horien artean, I-CIVIC Europar Batasunak finantzaturako nazioarteko proiektuan. Hezkuntza Berrikuntzaren arloan, bere doktoretza tesia tailerretan antolatzen diren Eskola Txikietan kokatzen da. Zehazki, eskola hauetan, haurra erdigunean ezartzeko eta haren inguruan hezkuntza-jarduna eraikitzeko oinarritzat hartzen dituzten gako pedagogikoak eta haien onurak aztertu ditu. Ikas esperientzia berritzaileak, haurren kultura zein ahalduntzea eta haurrekin burututako ikerketak dira bere interes-ildoak.


Irakasleak



Andoni Arguiñano Madrazo

UPV/EHU

Andoni Arguiñano Euskaldún Herriko Unibersitateko (EHU) irakasle agregatua da, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean, Didaktika eta Eskola Antolakuntza Sailean. ALHE ikerketa-taldeko kidea da, eta ICIVIC Europako proiektuaren koordinatzaileetako bat da. Dokore-tesia Antzuola Herri Eskola-n egin zuen, eta ordutik, ikerketa-taldeak laguntzen dituen praktika-komunitateen dinamizatzailer nagusietako bat izan da. Bere espezializazioa berrikuntza pedagogikoan, aniztasunarekiko begirada aldaketan eta irakaslearen rolaen azterketan oinarritzen da



Helena Forrellad Vives

Helena Forrellad Vives Lehen Hezkuntzako maistra da, gaur egun erretiraturua, eta ibilbide sendoa du hezkuntza-praktikaren gogoeta eta eraldaketarekin lotuta. "Pertsonen kultura matematikoa" mintegiaren koordinatzailea eta prestatzailea da (ICE UAB / URLeko FPCEEB), eta bertatik matematikaren ikuspegi humanista eta kulturala sustatzen du hezkuntzan. 2004-2005 ikasturtean ikerketa-lizentzia bat lortu zuen, eta haren baitan honako lana garatu zuen: "Ikasgela errealitate sozial gisa duen esanahia. Hura eratzten duten prozesuetan praktika matematikoen rola". Ikerketa horren helburua izan zen ikasgela praktikek eta interakzioek eraikitako gizarte-espazio gisa ulertzea. Kataluniako Generalitateko Hezkuntza Sailaren Matematikaren Praktika Erreflexiboaren Programan prestatzaileen prestatzaile izan da, irakasleen garapen profesionalari ikuspegi kritiko eta erreflexibotik lagunduz. Halaber, hainbat artikulu argitaratu ditu hezkuntzako ikerketa kualitatiboaren esparruan, bereziki irakasle-praktikan, berrikuntza pedagogikoan eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen inguruko gogoetan zentratuta.



Esther Gallardo Calonge

Haur eta Lehen Hezkuntzako Irakaslea eta Psikomotrizista, ikastetxe pribatuetan zein publikoetan 20 urteko ibilbide sendoa duena, batez ere 0-6 bitarteko hurrekin. Hezkuntzako hainbat arlotako

prestakuntzarekin (Hezkuntza sortzailea, Entzumena eta Hizkuntza, Zeinu-hizkuntza...), esperientzia zabalarekin metodologia ezberdinetan, eta Hezkuntza-berrikuntzako proiektuetan koordinazio zein lidergo lanak garatu dituenak, antolaketa-gaitasuna, ekimena eta erantzukizuna erakutsiz. Bere jardunean hurbiltasuna, entzute aktiboa, bidelaguntza eta haurrak erdigunean jartzen ditu, hurrei, familiei eta hezkuntza-komunitateari hazteko espazio seguru eta esanguratsuak eskainiz. Gaur egun, 2-3 urteko umeekin proiektuen bidez lan egiten duten eskola ari da lanean.



Inaki Karrera Xuarros

Dr. Karrera Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) irakasle agregatua da, Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean. 20 urte baino gehiagoko esperientzia du unibertsitate-irakaskuntzan, eta aurretik lau urtez hezkuntza-aholkulari gisa lan egin zuen derrigorrezko hezkuntzan. Bere irakaskuntza aniztasuna eta hezkuntza berezia lantzerantz bideratuta dago Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan. Horrez gain, master eta graduondoko programetan ere irakasten du, besteak beste, Gizarte-Hezkuntzako Esparruetako Ikerketako Masterrean. Halaber, "Psikodidaktika: Hezkuntzaren Psikologia eta Didaktika Espezifikoa" Doktorego Programako irakaslea da; bertan lau doktore-tesi zuzendu ditu eta gaur egun beste hiru zuzentzen ari da. Bere ikerketa-ildo nagusiak hezkuntza-inklusioa, gizarte-desberdintasunak eta berrikuntza pedagogikoa dira. Nazioarteko, estatuko eta autonomia-erkidegoko proiektuetan ikertzaile nagusi izan da, eta ALHE ikerketa-taldearen sortzaileetako bat eta ikertzaile nagusia da: Hezkuntzako Praktika Komunitatea (EHU/GIU22/002). JCR, Scopus eta SJR datu-baseetan indexatutako aldizkarietan artikulua argitaratu ditu, baita liburuak eta liburu-kapitulua ere



Garazi Ormazabal Arizcorreta

UPV/EHU

Garazi Ormazabal UPV/EHUko doktore ondoko ikerlaria da, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean, Didaktika eta Eskola Antolakuntza Sailean. Ikerketa arloan, ALHE ikerketa-taldeko kidea da, ondorioz, taldeko zenbait proiektuetan aktiboki parte hartzen du. Horien artean, I-CIVIC Europar Batasunak finantzatutako nazioarteko proiektuan. Hezkuntza Berrikuntzaren arloan, bere doktoretza tesia tailerretan antolatzen diren Eskola Txikietan kokatzen da. Zehazki, eskola hauetan, haurra erdigunean ezartzeko eta haren inguruan hezkuntza-jarduna eraikitzeko oinarritzat hartzen dituzten gako pedagogikoak eta haien onurak aztertu ditu. Ikas esperientzia berritzaileak, haurren kultura zein ahalduntzea eta hurrekin burututako ikerketak dira bere interes-ildoak.



Xabier Villanueva Izaguirre

Muskizen (Bizkaian) kokatzen den Muskizko Ikastola ikastetxe publikoko Lehen Hezkuntzako seigarren mailako irakaslea da Xabier Villanueva Izaguirre. Gaur egun, zentroko digitalizazio-batzordeko eta STEAM batzordeko koordinatzailea da. Euskal Herriko Unibertsitatean Lehen Hezkuntzan graduatua izateaz gain, Psikologian graduatua da Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionalan (UNED), Hezkuntza Psikologia eta hezkuntza-premia bereziak aipamenarekin. Era berean, Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) psikodidaktikan doktore da, "4 eta 8 urte bitarteko landare-munduaren ulermena, haurren marrazketa aztertuz, dilemak ebartziz eta biziaren kontzeptua ezagutuz" tesiarekin. Ildo horretan, zientzia esperimentalen eta matematika arloaren didaktikari buruzko hainbat artikulu zientifiko ere argitaratu ditu.



Steve Watson

Steven Watson Diziplina Arteko Ikasketetako irakasle elkartua da University of Cambridge eta Wolfson Collegeko Fellow Hezkuntza Fakultatean. Bere lana sistemen teoriaren, autopoiesiaren, zibernetikaren eta adimen artifizial sortzailea hezkuntzan eta ezagutzaren lanean gizarteratzearen arteko elkargunean kokatzen da. Ekologia Autopoietikoa (AE) garatzen du, testuinguru konplexuetan esanahiaren eraikuntza, bitartekaritza eta aldaketa instituzionala ulertzeko esparru ez-esentzialista. Bere ikerketak aztertzen du nola itzultzen diren diziplinak, erakundeak, publikoak eta teknologiak — eta askotan gaizki interpretatzen dira — elkarren artean, eta nola diseina daitezkeen komunikazio-modu gogoetatsu eta arduratsuagoak. Garapen teorikoaz gain, nazioarteko lankidetzak, sektore arteko topaketak eta berrikuntza-ekimenak bultzatzen ditu. Cambridge Generative AI in Education Conference erakundearen presidente sortzailea da, eta IA generatiboari, hezkuntzari eta gizarte-sistemen teoriari buruzko argitalpen zabala egin du. Irakasle bisitaria izan da Txinan eta Kroazian, eta EBk finantzaturako proiektuetan parte hartzen du, herritarren parte-hartzeari eta desinformazioaren aurreko erresilientziari buruz.



Ander Zubizarreta Zufiria

Ander irakaslea da Elgoibarko Herri Eskola EHE ikastetxean, eta 30 urte baino gehiagoko jarduna du irakaskuntzan. 20 urte daramatza proiektuen bidezko ikaskuntzan (Project-Based Learning) lanean. Bere

ibildidean zehar batez ere 10-12 urteko ikasleen tutore izan da; ikasgai guztiak landu baditu ere, bereziki matematika eta zientzien irakaskuntzan aritu da. Hezkuntza Laborategiaren sortzaileetako bat da, eta bertatik hezkuntza-berrikuntza eta irakasleen arteko elkarlana sustatzen dira.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2026-04-11 ARTE	2026-04-17 ARTE	2026-07-01 ARTE
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatutako kide	60,00 EUR	-	-
Ikastetxe asoziatuak	-	60,00 EUR	-
Orokorra	-	-	70,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	-	60,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	-	49,00 EUR
EHUko eta HUHEZIKo ikasleak	-	-	36,00 EUR
Elkar	-	-	60,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza	-	-	60,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2026-04-11 ARTE	2026-04-17 ARTE	2026-07-01 ARTE
Orokorra	-	-	70,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	-	60,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	-	49,00 EUR
EHUko eta HUHEZIKo ikasleak	-	-	36,00 EUR
Ikastetxe asoziatuak	-	-	60,00 EUR
Elkar	-	-	60,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza	-	-	74,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatutako kide	-	-	60,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa